

Familia zaugarriak eta pisuak bankuen esku: hori da okupazioaren errealitatea

Desinformazio mediatikoak eta propaganda politikoak alerta jo dute existitzen ez den arazo baten gainean: edonor sar daitekeela zu bizi zaren etxera eta okupatu. 180 aldiz posibleagoa zu etxegabetua izatea, zure etxe barruan norbaitekin topo egiteko baino.

DIEGO DELGADO / **ctxt** Erreportaje hau Ctxt-k argitaratu du eta CC by-sa lizentziari esker itzuli dugu.

Zortzi lege-proposamen, legez besteko zortzi proposizio eta bi mozio. Horiek dira okupazioaren fenomenoak legegintzaldi honetan Espainiako Diputatuen Kongresuan zifretan izan duen presentzia. Kasu guztietan, batean izan ezik –PSOE aurkeztutako legez besteko proposamen bat–, eskuina eta ultraeskuina izan dira protagonistak. Haien lerroetatik fenomeno horri buruzko dozenaka galdera ere atera dira, esaterako PPko Teodoro García Egeak 2021eko urtarrilaren 29an egin zuen honakoa: kezkatzen al du bigarren presidenteordea okupa ez den beste espainiarren baten ongizateak?

Okupazioak jarduera parlamentarioan izan duen presentzia handi hori estatuko irrati eta telebista kate handietan ere nabarmen islatu da, eta Isabel Díaz Ayuso, Pablo Casado edo Santiago Abascal bezalako figura politikoen adierazpen etengabeek presentzia hori indartu dute. Antena 3 telebista katea horren erakusgarri da, *La Marea*-ren artikulu honek erakusten duen bezala:

aste bateko egun guztietan informazioa eskaini zioten okupazioaren gaiari, igandean izan ezik.

Horren guztiaren emaitza joan den urriko Ikerketa Soziologikoen Zentroaren (CIS) barometroan ikus daiteke: etxebizitzaren okupazioa Espainiako arazo nagusietako bat da, herritarren arabera. Galdera irekia denez, aipatze hutsak garrantzi nabarmena ematen dio, baina errealitatea da genero-indarkeria edo politikariekiko eta erakundeekiko konfiantzarik ezaren maila berean dagoela, eta inkestatuaren %1ek jarri duela lehen 40 erantzunen artean.

Badirudi mugimendu okupak etxebizitza eskuratzea arriskuan jartzen duen ideia finkatuta dagoela, baina datuek ez dute justifikatzen alarma sozial horren nonahiko presentzia politiko eta mediatikoa. Alarma hori, ordea, oso onurgarria zaio segurtasunaren sektoreari, batez ere haren antitesia den etxegabetezen fenomenoarekin alderatuz gero.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren arabera, 2021ean 41.359 familia



bota zituzten etxebizitzatik Espainian. Urte horretan, Espainiako Estatistika Institutuak (INE) guztira 230 bizilekuren bortxatze-delitu jaso zituen, eta hori da hedabideetatik ohikoan jasotzen den “okupazio” mota. Bestela esanda, 180 aldiz aukera gehiago daude norbera etxetik botatzeko, ogia erostera atera eta itzuleran etxe barruan norbaitekin topo egiteko baino. Gainera, hedabideetan dena nahasten tematzen badira ere, bizilekuaren bortxatzea –bizi zaren etxean norbait sartzea– eta okupazioa oso jarduera desberdinak dira.

Hastapenetik, okupa mugimenduari helburua “bankuek hutsik dituzten eraikinetan sartzea” izan da. Horietan sartzen ziren etxebizitza duin bat izateko oinarriko eskubidea aldarrikatzeko, bereziki euren zaugarritasunagatik etxea eskuratzea ukatzen zitzaizen familiak buruan izanda. Hipotekak Eragindakoen Plataformako (PAH) Paco Morote bozeramaileak Ctxt-ko elkarrizketa honetan kontatzen duenez: “Gure ‘gizarte-ekintza’ deitzen genion”. Hortaz, okupen



La Gatenera etxearen okupazioa Madrilan.

TODO POR HACER



Okupazioaren aurkako legedi zorrotza eskatzen dute Espainiako eskuinak eta eskuin muturrak.

ekintzari ondoen egokitzen zaion delitu mota usurpazioarena da. Zigor Kodearen arabera, usurpazioa egiten da norbaitek baimenik gabe okupatzen duenean inoren “higiezin, etxebizitza edo eraikin bat, bizileku ez dena”. Hau da, etengabe hutsik dauden etxeak. Ez ogia erostera joan den andre baten etxea, ezta klase ertaineko familia baten oporretako bigarren egoitza ere. Hori ez da okupazioa. Gainera, hori gertatuko balitz, kanporatzea berehalakoa litzateke. Egiazki, ageri-ageriko delitua litzatekeenez, “ez litzateke behar kanporatzerik ere, etxean sartu denaren atxiloketak etxebizitza momentuan berreskuratzea ekarriko lukeelako”, argitu du Diego Alvarez magistratuak.

Jabeen ustezko babesgabetasunari dagokionez, benetako okupazio-kasu baten aurrean –gogora dezagun: termino hori erabiltzen den guztietan, hutsik dagoen higiezin baten usurpaziorik egingo zaio erreferentzia –, bai Paco Morotek bai Carlos Castillo Madrillo Maizterren Sindikatuko abokatuak, *Cxtx*ri adierazi diote legezko tresna nahiko daudela partikular batek ikus ez dezan bere jabetza inongo babesik gabe nola kentzen dioten. Bien iritzia epailetzako profesional askoren iritzitari gehitu behar zaio, hala nola, Joaquim Bosch edo lehen aipatutako Diego Alvarez. Castillok azaltzen du kasu batzuetan okupazioa denboran zergatik luzatzen den, eta zergatik, azkenean, okupe bertan bizitzen geratzea ahalbidetzen zaien: “Etxebizitza okupatuak daude oraindik, auzitegiek, Europak eta gure Konstituzioak aginduta, usurpazio-kasu batean jokoan dauden interesak haztatu behar dituztelako: banku batek urteetan etxebizitza bat hutsik uzteko duen interesa, adingabeak dituen familia batek bere kideen bizitzak garatzeko etxe bat izateko duen interesaren aurka”, abokatuak azaldu duenez. Eta, berriro ere, okupazioa denboran ez luzatzeko legezko tresnak daudela azpimarratzen du, baldin eta, jabe handi baten ordez, etxea bertan bizi den familia batena bada: “Albisteetan atera ohi diren kasu horietako batean –etxebizitza okupatzen dioten familia ahul baten kasuan– ez da ezer haztatu behar, eta etxean sartu direnak une horretantxe kalera doaz”.

Beste korrante desinformatzaile batzuen arabera, koalizio-gobernuaren ustezko permisibitate honekin, konspiratzen ariko lirateke Espainia edozein pertsona zure etxean sartu eta kalean



Madrilen bezala, Bartzelonan ere okupazioaren aurkako dinamikak indar handia hartu du. Idealista guneak horrela azpimarratu du etxe okupatu honen mezua.

utz zaitzakeen herrialde bihurtzeko. Hala ere, gobernuaren ekintza-ildo oso desberdina da, eta martxoaren 31ko 11/2020 Errege Dekretuan agerian geratu zen etxegabetzeen moratoria bat indarrean jarri zela Covid-19aren pandemiaren eragina murrizteko. Hartan, epaileei eskatzen zaie –baita larrialdi sanitario eta ekonomikoko egoera batean ere– okupatzen duenaren ezaugarriak zeintzuk diren kontuan hartzeko soilik etxejabe handien etxebizitzaren kasuetan; aitzitik, partikular baten etxea bada, erabiltzen ez bada ere, zuzenean dekretatu daiteke etxea utzi beharra.

Azken batean, datu ofizialek eta legegintzaren joerak agerian uzten dute, kasuen gehiengo handi batean, usurpazio-delituak ez diotela kalterik egiten inongo jabe txikiri.

EZ GAIZKILEAK, EZ BIZIZALEAK: ETXEBIZITZA DUINA IZATEKO ESKUBIDETIK KANPORATUTAKO FAMILIA ZAURGARRIAK

Argi utzi behar da okupazioa ez dela arazoa, sintoma baizik. Arazoa etxebizitza eskuratzeko baldintzetan dago. Esaldia behin baino gehiagotan errepikatzen da Paco Moroterekin telefonoz izandako elkarrizketan, eta badirudi nekatuta dagoela etengabe komunikabideen gezu-

Jabeei errentariak azkar eta bermerik gabe etxetik ateratzeko aukera emango dien legeria bat ezartzea da presio mediatikoaren helburua

rren aurka borrokatu beharraz.

Europar Batasuneko etxebizitza publikoen parke urrirenetako bat du Espainiak. Kontinentean pisu sozialaren batez bestekoa %9,3 den bitartean, estatuan kopurua %2,5eraino jaisten da. Zifra horiek herritarren bizitza errealean duten eragina ulertzeko baliagarria da La Caixa Fundazioaren txosten hau: 30 eta 34 urte bitarteko gazteen %68 baino ezin da emantzipatu Espainiako Estatuan; etxebizitza soziala ia %17an dagoen Frantzian, gazteen %96.

Gainera, okupazioaren kriminalizazio-kanpaina honi gorrotoa (aporofobia)

erantzen dion klase-joera ere bada: diru-sarrera gutxien duen kintileko familien ia %80k gehiegizko ahalegin ekonomikoa egin behar du alokairua ordaintzeko. Datua itzela da. Ahultasun ekonomikoko egoeran dauden hamar etxebizitza zortzik ezin diete egoitzagastuei aurre egin behar luketen lasaitasunarekin.

Higiezinaren sektoreak Espainian duen egoera larria azaldu ondoren, Bartzelona Gizarte Ekintzak egindako azterlan batek balio du okupazio mugimenduari buruzko estigma desmuntatzeko. Inkestatutako 626 etxebizitzarekin eta Katalunian zehar egindako 39 elkarrizketarekin, okupatzen duten pertsonen batez besteko ezaugarrien irudi garbia eskaintzen du ikerketak. Horietako gehienek (%75) diote beren okupazioa etxebizitza bat eskuratzetik ez izatearen edo etxegabetze bat jasan izanaren ondorio dela, eta inkestatuen %80k beste bizileku-aukera bat bilatu zuen okupatu aurretik. Horietatik, hamarretik seik etxebizitza sozial bat eskuratzeko eskatu zuten, baina ez zuten lortu. Espainiako etxebizitza publikoen parkea, ugarria izan barik ere Europako batez bestekoaren oso antzekoa balitz, usurpazio horien oso proportzio handia ez litzateke gertatuko. Kasuen erdietan baino gehia-

gotan adingabeak dituzten familiak dira. Adin-segmentu handiena 36-45 urtekoa da eta horietatik %72 mendetasun-egoera duten pertsonen kargura daude.

Horrez gain, okupazioaren beldurra tresna xenofobo gisa erabiltzea ere gezurtatzen da: inkestaturen %73k espainiar pasaporte duela egiaztatzen du. Eta immigrazio irregularraren mantra ere haizatu nahiko balitz, beste datu bat: paperik gabeko hamar migratzailetik seik (erantzunen %3 baino ez dute osatzen) mendetasuna duten pertsonekin bizi dela dio. Hau da, kasu gehienetan, etxe bat izatea hil ala biziko kontua da.

Azkenik, eta balio du Paco Morotek eta Carlos Castillok aurreratu dutena baieztatzeko, Katalunian okupatutako bost etxebizitzatik lau baino gehiago (%82) jabe handienak dira -finantza-erakundeak, horien higiezin filialak, inbertsio-funtsak, Sareb bezalako erakundeak eta 1.250 m2 baino gehiagoko azalera bizigarriaren titularrak diren pertsona juridikoak-. Okupazio horien artean, bankuen pisuak nabarmentzen dira, hamarretik zazpi.

Demostratua geratu da eragindako gizarte-alarma faltsua dela; etxe bat aurkitzeko etsita dauden familiak munstro

Okupazioaren beldurra tresna xenofobo gisa erabiltzea ere gezurtatzen da: inkestaturen %73k espainiar pasaporte duela egiaztatzen du

bihurtu nahi izan dituzte eta, beraz, zaila da hainbesteko tematze mediatiko eta politikoa ulertzea. Baina ez horren zaila Madrilgo Maizterren Sindikatuko abokatuak iradokitzen duen ikuspegitik aztertzen bada: eskuindarrentzat eta ultraeskuindarrentzat guztiz erabilgarria den "tresna ideologikoa" da, non oso ondo egokitzen diren haien etsai nagusiak, hala nola LGTBI kolektiboa, arrazializatutako pertsonak, klase baxuak eta mota guztietako aktibismoa.

ALARMEN BURBUILA

Borroka ideologikoa nahastu da, halaber, etxeko segurtasunaren sektoreak dituen interes ekonomikoekin, Espainia denean Europar Batasun osoan alarma gehien duen estatua eta munduko laugarrena. Negozio honek 2.000 milioi euro inguru mugiarazten ditu estatuan, eta 2021ean sektorea %12,3 hazi zen. Biolentzia erabiltzen duten talde neozaziak ere sortu dira eta etekina ateratzen ari dira gizartean gai honekin ere in den izutik.

Eraso asko PSOren gobernuaren aurkakoak dira bete-betean, baina ez mugitzeaz gain, gobernu-koalizioaren alderdi nagusiak hilabeteak daramatza Etxebizitzarako Eskubidearen aldeko Legeari boikota egiten. Unidas Podemosekin legegintzaldiaren hasieran lortutako akordioan sinatu zen neurri hori, eta Dunja Mijatovic Europako Kontseiluko Giza Eskubideen komisarioak etxebizitza eskubidearen egoeragatik Espainiari egindako enagarren errietan, gobernuari exijitu dio lege hori onar dezan.

Horren ordez, PSOren parlamentu-taldeak, gobernu-bazkideari alde aurretik kontsultarik egin gabe eta ultraeskuinaren diskurtsoari harrigarriki



Iragarki honetan azaltzen diren pertsonak ez dira errealak, ordenagailu batek sortu ditu ausaz.

Benetako pertsonak ordenagailu batean ezagutzeko zatoz **kaixomaitia.eus** atarira!

 kaixomaitia Euskaldunon harremanetarako webgunea

8.000 lagun dituzu zain





Madrilen Ciudadanosek okupazioaren aurka deitutako ekitaldiaren aurrean egindako protesta.

lotuz, Prozedura Kriminalaren Legearen erreforma erregistratu du, usurpazioetan ere kanporatze espres horiek ahalbidetzeko. Gainera, Carlos Castilloren arabera, “PSOEn proposamena astakeria juridikoa da, ez du ez hanka ez buru”.

Nació atariko artikulua batean, Roger Tudas Vilardell-ek azalpen bat bilatu zuen horren guztiaren inguruan, eta aztertu zuen ea errentatzaileen etekinak murrizteak legedi hori onartzen duten pertsonen zuzenean eragingo ote zien. Emaitzek berez hitz egiten dute. Biztanleriaren %5,4k baino ez ditu alokairuko etxebizitzak, baina zifra hori %33,3ra igotzen da Ciudadanoseko diputatuen artean, %30,8ra Voxen, %22,7ra PPn eta %17,5era PSOEn, eta horrek biztanleria orokorraren proportzioa hirukoizten du. Unidas Podemosek ere batez bestekoa gairatzen du, baina ez horren nabarmen: %9,1.

PUTRE FUNTSAK ETA MINISTRO SOZIALISTA OHIAK. ETENIK EZ DUEN PRESIOA

Deriba neoliberal horren guztia- ren atzean etxebizitzaren lobby-aren etengabeko presioa dago, Alokairuzko Etxebizitzaren Jabeen Elkarte (ASVAL) buru duena, funts putreen interesak ordezkatzen dituena, Blackstone kasu, eta Pedro Sánchezen alderdiarekin lotura sendoak dituena. Elkarte horren presidentea Joan Clos da, ministro ohi sozialista eta Bartzelonako alkate ohi. Figura hori kontuan hartuta, hobeto ulertzen dira Bartzelonako alkate Ada

Europar Batasuneko etxebizitza publikoen parke urrienetako bat du Espainiak. Kontinentean pisu sozialen batez bestekoa %9,3 den bitartean, estatuan kopurua %2,5eraino jaisten da

Colauren salaketak, esaten duenean “higiezin sektorea presionatzen ari dela” (eta hurbiltasun geografikoagatik eta etxebizitzaren aktibista izateagatik, kontuan hartu beharke ahotsa da). Izan ere, *El Confidencial*-ek adierazi zuen Raquel Sánchez Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako ministro aukeratzearrekin, etxebizitzaren sektoreko erabakia hurbiltzen zitzaizkiola PSCri, eta horrek errazten duela, halaber, Closek inoiz baino aukera hobea izatea zuzentzen duen espekulatuzaileen lobbyaren aldeko erreformak lortzeko orduan.

AURREAN DUGUNA

Testuinguruak asko laguntzen duenean, eta zentro-ezkerraren ageriko lanki-

detzarekin, gerra kulturalak aurrera baino ezin du egin. Areago krisi ekonomikoak eta energetikoak biztanleriaren sektore handiak pobrezia bultzatzen dituztenean. Norabide horretan, helburu bihurtzen dira kriminalizazioaren mugak are gehiago zabaltzea eta iritzia publikoa jabe handien interesekin le- rrotkatzen jarraitzea.

Carlos Castillok horretarako erabil- tzen ari diren estrategiaz ohartarazten du. “Azkenotako joera maizter-okupa- zioaz hitz egitea da, eta horrek ASVA- Lekin eta horrelako lobbyekin zerikusi handia du”. Hau da, okupa bat errenta ordaintzeari uzten dion maizter bate- kin parekatzea. Diskurtso horren hel- burua da igo den alokairua ordaindu ezin duten edo alokairua hainbat hila- betez ordaindu ezin duten prekarizatu- tako pertsonak okuparen figura erabat iraindu eta kriminalizatuarekin nahas- tea. Edo urrats bat gehiago ematea eta NBek eskatzen duenaren guztiz kon- trakoa sortzen saiatzea, hau da, jabe- errentariak azkar eta bermerik gabe etxetik ateratzeko aukera emango dien legeria bat ezartzea. “Hasten bagara ideia bat sortzen, hau da, maizter-oku- pa alokairua ordaintzeari uzten dizun pertsona dela eta berehala irtenarazi behar dela, bihar 500 euroko igoera eska diezaioket nire maizterrari eta, onartzen ez badu, jurisdikzioak kalera bidali eta etxebizitza berriro alokairuan jartzeko aukera emango dit edo, ziklo ekonomiko hobe baten zain, hutsik uz- tekoa”. ●